

Hitzordu

«Irudiz irudi, liburu ibiltari»

GALTZAGORRI ELKARTEA



Iaz Galtzagorri Elkarteak «IRUDIZ IRUDI, LIBURU IBILTARI» abian jarri eta aurten ere funtzionamenduan dagoen proiektu-aretoa azalduko dugu Hitzordu honetan.

Horrela, jakina da Euskal Haur eta Gazte Literaturaren atal garrantzitsu bat dugula irudigintza. Irudigilearen papera zenbaitetan idazlearenaren itzalean geratzen bada ere, ez dugu horregatik profesional hauen lanaren garrantzia alboratu behar. Irudiz Irudi-k Euskal Herriko haurrei irudigileen lana gerturatzeko die, haien azalean jartzeko aukera eskaini eta egun batez, ondoren beraien eskoletara eramango duten liburu baten irudigile izateko aukera emango die.

Proiektu-areto hau Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleentzat, hau da 10-12 urte bitarteko haurrentzat zuzendua dago.



Honako helburuak betetzeko sortu zen:

- Irudigileen lanaren berri izatea.
- Irudigintza teknika desberdinak praktikatzea.
- Liburu baten sortze prozesua ezagutzea.
- Haurrak liburu sortze prozesuan irudigileak duen papera bere baitan bizitzea.
- Beraien eskuekin sorturiko liburu propio bat eramatea.

Dinamizatzaile lanetan Maider Kalonjek dihardu, Maider irudigilea izateaz gain, haurrentzako tailer ugariaren zuzendaria da.

Aretoaren metodologia honako hau da:

Bi arlo ezberdinei –teorikoa eta praktikoa– emango zaio garrantzia:

a) Alderdi teorikoa:

Dinamizatzaileak ekintzaren hasieran, liburu batek dituen atalen eta liburuaren sorkuntza prozesuaren berri emango die haurrei.

Bestalde, irudigileak testua jasotzen duen unetik liburuan agertzen diren irudiak sortu bitartean ematen dituen pausuak ere azalduko dizkie. Behin bi atal hauek argi izanik (liburua–irudigilea), atal praktikoa burutuko dituzten lau liburu moten ezaugarrien berri emango die: album ilustratua, nahaste-borraste liburuak, poema liburuak eta albumekin jolastuz.

Atal teorikoa osatzeko, 86 liburu eta bi katalogo jasotzen dituzten bi euskarri daude. Katalogoetan XX eta XXI. mendeetan zehar Euskal Herrian izan ditugun irudigile garrantzitsuenen marrazkien laminak jasotzen dira. Bestalde, ikusgai dauden 86

liburuetan, irudigintzaren munduaren aniztasuna islatua geratzen da..

Azkenik, ordenagailu batean ikusgai dago munduko irudigile garrantzitsuenen, komiki irudigile eta euskal irudigileen marrazkiak jasotzen dituen CDa.

b) Atal praktikoa:

Atal hau izango da aretoaren muina. Ikasle taldea erakusketa osatzen duten lau mahaietan banatuko da. Mahai bakoitzean lau edo bost umek lan egingo dute eta talde bakoitzak liburu mota bat osatuko du ikastetxera eramateko. Mahai hauetan burutuko duten lanaren ondorioz, irudigileak burutzen duen lana zenbat eratakioa izan daitekeen eta zenbat teknika desberdin erabil daitezkeen ezagutuko dute haurrek.

1.GO MAHAIA

Album klasikoa:

Haurrei album klasikoari buruz ematen zaizkien ezaugarriak:

Testuak istorioa kontatzen du.

Marrazkiak istorioa kontatzen du.

Biak elkarrekin istorioa kontatzen dute.

Bakoitzak bere aldetik istorioa kontatzen du.

Teknika: Akuarelak

Materiala: kartulinak, folioak, haria, pintzelak eta margoak.

Lana: Ursula Wölfel-en Ahate gautxoriaren ipuina oinarritzat hartuz, ipuin horren irudiak sortu behar dituzte baina album ilustratuaren

ezaugarriak errespetatuz. Beraz, oso garrantzitsua da, kasu honetan irudigileak sortzen dituen marrazkiak testua kenduta ere, istorio bat kontatzen dutela jakitea. Ezaugarri hau betetzen ez bada ez da album gisa definituko.

2. MAHAIA

Teknika berriekin jolastuz:

Kasu honetan, liburu beraren ezaugarria baino teknika desberdinen ezagutza bultzatzea da helburu. Haurrek orokorrean, irudigintza marrazkiak egitearekin lotzen dute. Gaur egun ordea, teknika ugari darabilte lanerako profesional hauek.

Ezaugarriak:

Marrazkiaz gain, beste teknikak erabili daitezke: collage, plastilina, argazkiak eta abar.

Teknika:

Mahai honetan, collage-a lantzen dute.

Materiala:

Kartulinak, arkatzak, koloreak... izango dituzte lan tresna.

Guraizak, kartulinak, kola, folioak, haria.

Lana: Itziar Zubizarretaren Aurelioren bokalen ipuina oinarritzat hartuz eta collage teknika erabiliz liburu bat sortu behar dute. Liburu honetan, irudia testuaren osagarri edo laguntzaile da.

3. MAHAIA

Ipuin mutua:

Ezaugarriak:

Marrazkien bidez istorio bat kontatzen da. Testurik ez dago.


Teknika:

Koloretako arkatzez egindako marrazkiak.

Materiala:

Koloretako arkatzak, ezabatzekoak, folioak, kartulinak, haria.





Lana: Itziar Zubizarretak sortutako zenbait testu labur eskaintzen zaizkie bat aukeratu dezaten. Aukeratzan duten testuaren ideia jaso eta marrazkietan adierazi behar dute. Kontutan izan behar dute beraien liburuan testurik ez dela agertuko beraz, irakurleak istorioa beraien marrazkien bidez ulertu behar duela.

4.MAHAIA

Nahaste berraste liburuak:

Ezaugarriak:

Liburu barnean testu bat baino gehiago daude.

Testu bakoitzak zerbait adierazten du.

Testu bakoitzak marrazki bat du.

Poema liburu, ipuinen bilduma... moduko liburuak dira.

Teknika:

Karikatura

Materiala:

Koloretako arkatzak, ezabatzeakoak, folioak, kartulinak, haria.

Lana: Juan Kruz Igerabideren zortzi poemen karikaturak sortu behar dituzte. Liburu honetan, irudigileak testuaren ironia jaso eta azpimarratu behar du bere marrazkian.

Liburuak amaitzen dituztenean denon artean ikusten dira eta liburu mota bakoitzaren ezaugarriak betetzen diren aztertzen da. Horrez gain, haurrek argi ikusten dute liburu bakoitzean irudigilearen lana desberdina izan dela.

Azkenik, aipatu erakusketa honetan jasoko den informazioa eta bertan burutzen diren lanak Galtzagorri Elkartearen web orrian ikusgai egongo direla: www.galtzagorri.org helbidean.